

BIGARREN OLATUKO FEMINISMOA.

Berezitasunak eta Euskal Herrian izan zuen eragina;

1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak

Ilargi Bengoetxea Gartzia

Historiako Gradua

Gradu Amaierako Lana

2014/2015

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Tutorea: Miren Llona González

Historia Garaikideko Saila

Laburpena

Bigarren olatuko feminismoa 60. hamarkadan Mendebaldean sortu eta garatu zen mugimendua izan zen, teoria eta praktika uztartu zituen eta beste munduko hainbat tokitara zabaldu zena. Aurreko garaiko feminismoez desberdindu zuena patriarkatuaren kontzeptio berria izan zen, gizonen boterean oinarritzen zen sistema hori aspektu guztietan erreproduzitzen zela aldarrikatuz eta ondorioz, horren kontra politikan, ekonomian, kulturaren, ohituretan, arlo sozialetan etab. ekin zioten emakumeen eskubideen eta askatasunen alde. Borroka dinamika, forma eta antolakuntza berriak sortu zituen eta arlo indibidual eta kolektiboan aritu zen, arlo pribatua eta publikoa batuz. Familia, generoa, rolak, amatasunaren instituzioa eta beste hainbat elementu eraikuntza sozial eta kulturalak zirela barneratu zituen, gizakiaren izatean zer zen kulturala eta zer naturala eztabaidak presentzia handia hartu zuelarik. Feministek emakume eta gizonen artean erlazio erreprozitaterik ez zegoela salatu zuten, emakumea gizonaren arabera zela, *bestea*, eta gizona berriz absolutua. Beraz, lehenik emakumearen zapalkuntza onartu eta identifikatu zuten eta emakumea subjektu bezala hartu, subjektu horrek emakume guztien interesak defendatzen zituelarik eta borrokaren helburu komunak bateratzen zituelarik. Hori horrela, borrokari ekin zioten, tartean sexualitatearen inguruko tabu eta mitoak deuseztatzen saiatuz, emakumearen liberaziorako beharrezkoa zena. Horrek talka handia eragin zuen garaiko ohitura eta pentsamenduekin. Bestetik, mugimendu bat izanik, etengabe eboluzionatzen joan zen, korrante eta eztabaida desberdinak sortuz; eztabaiden artean nabarmenena berdintasuneko feministen eta diferentziaren feministen artekoa izan zen, horrekin batera, bakoitzak militantzia eredu desberdinen alde eginez.

Euskal Herrian ere, mugimendu honek garaiko gizartea astindu zuen, berezitasun eta ezaugarri propioekin, bertako testuinguruak baldintzatuta baina aldi berean feminismoak testuinguru patriarkal hori aldatzeko ahaleginak eginez. Kontuan hartzekoak dira Euskal Herriko feminismoa aztertzeko orduan, kanpoko mugimenduen eragina batetik eta bestetik Euskal Herriko egoera propio eta berezia, Hegoalde eta Iparraldeko egoera politiko desberdinak tartean.

Lan honen asmoa mugimendu zabal honen ezaugarriak, korrante ezberdinak eta eztabaidak aztertzea izango da bai eta Euskal Herrian zentratuz, bertako joera eta berezitasunak ikertzea, 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketan bidez.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4. or.
2. Bigarren olatuko feminismoaren ezaugarri eta berezitasunak.....	5. or.
2.1. Patriarkatuaren jatorria eta historia	8. or.
2.2. Sistema patriarkal eta kapitalista.....	10. or.
2.3. Feminismo korrante ezberdinak.....	11. or.
3. 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak	13. or.
3.1. Barne eztabaidak	14. or.
3.2. Sexualitatea	17. or.
3.2.1. Hezkuntza	20. or.
3.2.2. Erreproduzioa, amatasuna eta sexu askatasuna	21. or.
3.2.3. Medikuntza, antisorgailu eta abortua.....	23. or.
4. Ondorioak	25. or.
5. Bibliografia.....	28. or.

1. Sarrera

Bigarren olatuko feminismoa 60. hamarkada bukaeran sortutako mugimendua zabal eta heterogeneoa izan zen, mugimendu sozial berrien sorkuntzaren testuinguruan eta elkarreraginean. Borroka dinamika, forma eta antolakuntza berriak sortu zituen eta arlo indibidual eta kolektiboan aritu zen, arlo pribatua eta publikoa batuz. Emakumeen eskubide berdintasuna aldarrikatzeaz gain, askatasuna eta autonomia ere eskatu zituen.

Hasiera batean, identifikatu gabeko zapalkuntza baten kontrako mugimendua izan zen, izenik gabeko gaizkiegona fenomeno sozial zabala zela adierazi zuena.¹ Familia, generoa, rolak, amatasunaren instituzioa eta beste hainbat elementu eraikuntza sozial eta kulturalak zirela barneratu zituena. Mugimendu honen teorizazioa eta oinarria jarri zuten pentsalariak besteak beste Simone de Beauvoir, Shulamith Firestone, Angela Davis, Juliet Mitchell, Kate Millett eta Adrienne Rich izan ziren.

Feminismo honek Euskal Herrian ere eragin handia izan zuen, berezitasun propioak izan zituelarik; bertako egoera eta testuinguru bereziak baldintzatuta. Hegoaldean, 1975 arte, Frankoren diktadurapean eta zentsurapean bizitzeak ideia berri hauen etorrera eta sorkuntza zaildu zuen arren, ez zuen gelditu. Franko hil zenean indarra hartu zuen, horren lekuko izanik 1977ko abenduaren 8tik 11era burutu ziren Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak.² Iparraldean, egoera desberdinaren ondorio, lehenago aurki ditzakegu lehen aldarri feministak. Horrela, 60 eta 70. hamarkadetan genero erlazioetan emandako aldaketa handienaren hasiera eman zen.

Lan honen asmoa mugimendu zabal honen ezaugarri eta berezitasunak aztertzea izango da, garai hartako liburuen bidez, lehen mailako iturrien bidez hain zuzen, eta bestetik gaur egungo teorilariekin ikuspuntu historiko bat hartuko dugu. Bestetik, Euskal Herrian izan zuen eragina aztertuko dut, zein berezitasun zituen ikusi eta barneko eztabaida eta korrante desberdinak ikertu. Horretarako, Euskal Herrian izandako eragina eta eztabaidak ikusteko, Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketen idatzietara joko dut.

Topaketa hauen helburua emakumeen iritziak, bizipenak eta esperientziak jasotzea izan zen: “(...) *biltzea, gure indarra sentitzea, zerk batzen gaituen jakitea eta baita ere zuk, hark*

¹ Mary Nash, *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*, (Madril: Alianza, 2004), 166.

² Mercedes Comabella, “Movimiento Democrático de Mujeres”, in Carmen Martínez Ten et al. (ed.), *El movimiento feminista en España en los años 70* (Madril: Cátedra, 2009), 260.

eta nik nola sentitzen dugun gure zapalkuntza, gure baztertzea, jakitea.”³ Lana feminismoak eztabaidatu eta landu zituen gaien, eta antolakuntza eta korrante desberdinen eztabaiden arabera antolatu dut; zalantzan jarri zuten guztia, hipotesi berrien sorkuntza eta antolatzeko orduan egon ziren eztabaida eta problematikei garrantzia emanez.

2. Bigarren olatuko feminismoaren ezaugarri eta berezitasunak

Feminismo terminoa XIX. mendearen bukaeran aditzera eman zen, emakumeen eskubideen aldeko manifestazioen ostean. *Femina* latinez emakumea da eta *ismo* mugimendu, eskola, sistema eta doktrinak izendatzeko atzizkia. Historian zehar eduki eta esanahi desberdinak izan ditu eta testuinguruaren eta historiografiaren arabera birdefinitzen joan da, egun Harluxet hiztegiak adierazten duena hau izanik:

*“Emakumeen eskubideak eta estatusa zabaldu eta sakontzea helburu duen teoria eta mugimendu soziopolitikoak. Emakumeek patriarkatuaren baitan gizonezkoek osatutako giza taldearekiko menpekotasuna eta esplotazioa jasan eta jasaten dituen giza taldea osatzen dutela oinarritzat hartuz, bere sexuaren askapenerako gizarteak behar dituen aldaketak eragin nahi ditu feminismoak.”*⁴

Bigarren olatuko feminismoa 60. hamarkadan sortutako mugimendua izan zen, Simone de Beauvoirrek 1949an argitaratutako *Bigarren Sexuak* mugimendu hartako teoria eta praktika garatzeko oinarriak jarri zituelarik.⁵ Mugimendu sozial berriekin batera sortu zen; eskubide zibilen aldeko mugimendua, afroamerikarren eskubideen aldekoa, mugimendu pazifista, ikasleen mugimendua, Ezker Berria eta mugimendu deskolonizatzaileekin batera, besteak beste.

Gerren arteko aroan Mendebaldeko herrialde askotan sufragio unibertsala eta emakumeen hezkuntza eskubidea lortu zuten eta ondorioz sufragioan oinarritutako mugimendu feministak indarra galtzen joan ziren. Horrez gain, Bigarren Mundu Gerra amaitzean feminitatearen ideario tradizionala berriz ere indartu zen, baliabide kulturalen bidez

³ Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak I, 1.

⁴ Harluxet entziklopedia. <http://www1.euskadi.net/harluxet/> (kontsulta data: 2015/05/24)

⁵ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 169-170.

zabalduz batez ere, eta emakumea ama eta emazte paperera mugatuz berriz ere. Garai honetan beraz, feminismoa apaltzen joan zen eta erresistentzia estrategia eta aldarriak ahaztuz joan ziren ideia erreakzionarioek prozesu horri bultzada eman ziotelarik.⁶ Testuinguru honetan sortu zen 60. hamarkadako mugimendu feminista.

Hasiera batean, aurreko feminismoetatik diferentziatzen zuena, identifikatu gabeko zapalkuntza baten kontrako mugimendua eta izenik gabeko gaizkiegona fenomeno sozial zabala zela adierazi zuela izan zen. Emakumearen egoera edozein talde sozialekin alderatuz desberdina zela ikusi zuten; emakumeak funtsezkoak ziren baina aldi berean marjinalak eta zapaltzaileekin zuten erlazioa oso berezia zela. Emakume eta gizonen artean ez zegoen erlazio erreprozitaterik, emakumea gizonaren arabera zen, *bestea*, eta gizona berriz absolutua. Emakumeak bere buruarekiko zuen irudia gizonek sortua izan zen; gizonek sortu zuten historia, mitoak eta kultura euren interesen arabera eta emakumeari subjektu izatea ukatu zioten. Emakumeak printzipio eta balore horiek barneratu eta onartu zituen bereak izango balira bezala. Horrela, koertzioa eta indarkeria arindu zen ideologia patriarkala bi sexuek barneratu eta naturalizatu zuten sistema zelako.⁷ Hau da:

*“No estamos acostumbrados a asociar el patriarcado con la fuerza. Su sistema socializador es tan perfecto, la aceptación general de sus valores tan firme y su historia en la sociedad humana tan larga y universal, que apenas necesita el respaldo de la violencia.”*⁸

Gizakiaren izatean zer zen kulturala eta zer naturala eztabaidak presentzia handia hartu zuen. Simone De Beauvoirrek *Bigarren Sexua* idazteko orduan bere buruari egin zion lehen galdera *emakumea* zer den galdetzea izan zen eta bere bizitzan zer suposatu zuen bera *emakume* jaiotzeak. Lehenik eta behin, gizon batek bere buruari galdera hori egingo ez ziola konturatu zen, gizona positiboa, neutroa eta absolutua zelako gizartean, gauza guztien neurria. Bere ondorio nagusietako bat emakumea ez dela emakume jaiotzen, izatera heltzen dela baizik izan zen. Kate Milletek ere pertsonalitate psikosexuala ikasia dela zioen eta maskulinitatea eta feminitatea bi kultura eta bi bizimodu erradikalki diferente zirela; koittoa bera ikasitako erantzunetan oinarritua zegoela.

⁶ Ibídem, 163.

⁷ Juliet Mitchell, *La liberación de la mujer: la larga lucha*, (Bartzelona: Anagrama, 1975 [1966]), 26-27.

⁸ Kate Millet, *Política sexual* (Madril: Cátedra, 1995 [1970]), 100.

Borroka dinamika berri bat sortu zuen feminismo honek, sare informalen bidez antolatu zena eta beraz, forma eta antolakuntza berriekin ekin zioten borrokari. Aspektu indibidual eta kolektiboak elkartu zituzten, pribatu eta publikoa elkartuz. Emakume eta gizonen eskubide berdintasuna eskatzeaz gain, emakumeen askatasuna eta autonomia ere izan ziren euren aldarri. Aspektu kultural eta sinbolikoetan sartzea berritasun garrantzitsua izan zen, emakumeek zapalkuntza politiko eta ekonomikoaz haratago, zapalkuntza kultural eta soziala jasaten zutela salatu zutelarik. Oso mugimendu anitza eta dibertsoa izan zen, barne eztabaida handiekin eta toki eta testuinguru desberdinen arabera erantzun eta planteamendu desberdinak izan zituen, feminismoaz baino feminismoez hitz egitea komenigarriagoa delarik askotan.

Hamarkada horietako feministen iritziz botere harremanak, gizarte patriarkalean aspektu guztietan zeuden, horren ondorioz zapalkuntza, maila guztietan egonik ere. Kate Millet-en arabera patriarkatua bi printzipioetan oinarritzen zen; gizonak emakumea dominatzen du eta gizon nagusiak gaztea. Sexua politikaz bustia dagoen kategoria soziala da eta gizon eta emakumearen arteko erlazioak dominazio erlazioak dira: “(...) *el sexo reviste un cariz político (...)*”.⁹ Patriarkatuaren politika sexuala sozializazio bidez onartu da eta horretan familia izan da tresna garrantzitsua; sexuen arteko desberdintasun psikosozialak desberdintasun biologikoetan oinarritzen zirela eta beraz naturalak zirela sinestarazteko erabili zen tresna.

Sexualitatearen inguruko tabu eta mitoak deuseztatzeari ekin zioten, emakumearen liberaziorako beharrezkoa zena eta horrek talka handia eragin zuen garaiko ohitura eta pentsamenduarekin. Emakumea objektu sexuala izan da baina, aldi berean, lotsatzera behartua eta inoiz ez bere buruaren eta gorputzaren jabe. Amatasunaren eta sexualitatearen esperientziak interes maskulinoak erantzuteko moldatuak izan ziren eta instituzio hauek arriskuan jartzen zituzten praktikak desbideratze edo ekintza kriminalak ziren; hala nola, maitasun ez legitimoak, abortua, lesbianismoa... Guzti honen aurrean feminismoak emakumea bere gorputzaren jabe zela aldarrikatu zuen eta sexu askatasunaren alde egin, sexu eta praktika aniztasuna babestuz.¹⁰ Horrela, mugimendu honen subjektua emakumea izan zen, bera baitzen guzti honen aldaketa eta iraultza egin zezakeena eta egin behar zuena.

⁹ Ibídem, 27.

¹⁰ Adrienne Rich, *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*, (Madril: Cátedra, 1996 [1976]), 402.

2.1. Patriarkatuaren jatorria eta historia

“(…) *La supremacía masculina (…)* no radica en la fuerza física, sino en la aceptación de un sistema de valores cuya índole no es biológica.”¹¹

Patriarkatua ikuspegi fisiologiko batetik saihestezina zela eta bere jatorria historikoa eta logikoa zen ideia oso zabalduta zegoen eta feminismoak hori gezurtatzeari ekin zion, hori baitzen patriarkatuaren defentsa arma handiena, bere unibertsaltasuna. Horretarako patriarkatuaren jatorria, zergatia eta bilakaera ikertzen hasi ziren asko. Friedrich Engels-en *El origen de la familia la propiedad privada y el estado* liburuak lehen harria jarri zuen ondorengo analisiak horretatik hasteko, bere teoria sostengatuz, kritikatu edo ukatuz. Engelsen arabera, gizakiaren historian lehenengo antagonismoa sexuen arteko desberdintasuna izan zen eta herentzia patrilinealak emakumeari kalte handia egin eta monogamia inposatu zion. Emakumearen arazoa lana egiteko kapazitatea ahultasun fisiologikoak mugatzen zuela da eta hori bera izango litzateke zapalkuntzaren kausa. Honen arabera beraz, lan egiteak emakumea askatu egingo du.¹² Engelsi eginiko kritika nagusia, arazoa ez zela emakumeak lana egiten ez zuela, baizik eta egiten zuen lana errekonozitua ez zegoela izan zen. Batzuek gizarte patriarkalaren aurretik emakumean oinarritutako gizarte baten existentzia babestu zuten baina De Beauvoirrek adibidez, mundua beti gizonena izan zela esan zuen, eta horretarako teoria existentzialean oinarritu zen.

De Beauvoirrek patriarkatua analizatzeko biologia, materialismo historikoa eta psikoanalisi lagungarriak zirela uste zuen baina ez nahikoak eta bere teoria existentzialista erabili zuen hutsune horiek betetzeko. Gizonak hasieratik, indar fisikoaren pribilejioa izanik, gerra eta ehiza bidez transzendentzia lortu zuen, emakumea ordea erreprodukzioaren menpe egonik errepikapen eta immanentziara kondenatua izan zelarik; horrek sortu zuen botere desberdintasuna. Horrela, gizonek hasiera batean indar fisikoaren pribilejioa eta prestigio morala izan zuten, horrekin interes propioak babesteko balio, ohitura eta erlijioa emakumeen oniritziarekin sortu zuten.¹³

Kate Milletten aburuz ezinezkoa da patriarkatuaren jatorria azaltzea. Adrienne Richen arabera sistema patriarkala sistema familiar, sozial, ideologiko eta politikoa zen, zeinetan

¹¹ Kate Millet, *Política sexual...*, 74.

¹² Juliet Mitchell, *La liberación de la mujer...*, 13-14.

¹³ Simone de Beauvoir, *El segundo sexo* (Madril: Cátedra, 1999 [1949]), 211.

gizonek emakumeen papera zein izan behar zen erabaki eta inposatzen zuten, horretarako indarra, presio zuzena, ohiturak, hezkuntza eta beste hainbat baliabide erabiliz. Sistema hori, Richen ustez, toki eta maila guztietan aurkitzen zen, hizkuntzan bertan. Patriarkatua baino lehenagoko ama eskubidean oinarritutako gizartean sinesten zuen eta patriarkatua jabetza pribatuarekin lotuta sortu zela: “(...) *en este cruce de caminos de la posesión sexual, la propiedad y el deseo de transcender la muerte se desarrolló la institución que hoy conocemos.*”¹⁴

Nahiz eta desadostasunak egon gai honen inguruan, denak batzen zituena eta denek onartzen zutena patriarkatua ez zela saihestezina zen, ez naturala, baizik sistema zapaltzailea eta horren aurrean emakumeek aldaketa borrokatu behar zutela. Sistema berezia izanik eta lehen esan dugun bezala, zapaltzaileekiko erlazioa berezia zenez, borroka antolakuntza eta helburuak beste mugimenduekiko desberdinak izan ziren: “*Liberar verdaderamente a la mujer quiere decir cambiar el pensamiento: reintegrar lo que se ha llamado inconsciente, subjetivo y emocional, en lo estructural, racional e intelectual (...)*” dio Richek.¹⁵ Horrela, mugimendu honetan kontzientziazio taldeak oso ohikoak izan ziren, ohiturak eta hain barneratuak eta normal eta naturalizat hartzen ziren jokabide eta jarrerak aldatzea ezinbestekoa zelako. Maila politiko eta legegilea aldatzea ez ezik maila kultural eta soziala irauli behar ziren, sistema patriarkala maila eta toki guztietan zegoelako.

Familia, indibiduo eta estruktura sozialaren bitartekaria zela argi adierazi zuten, autoritate politikoaren kontrola iristen ez zen tokitara iristen zena. Familia beraz, seme-alaben sozializazioaren erantzule zen, ideologia patriarkalak ezarritako paper, izaera eta posizioa erakutsi eta inposatzea izanik bere lana.¹⁶ Horretaz gain patriarkatua jabetza eta interes tradizionalak babesten zuten, elkar sostengatzen dutelarik.

Mitchellen arabera emakumearen egoera estruktura espezifiko baten ondorio zen, elementu desberdinek osaturiko estrukturarena hain zuzen. Elementu horiek, produkzioa, erreprodukzioa, sexualitatea eta seme-alaben sozializazioa ziren. Emakumearen liberazioa lau estrukturak aldatuz soilik zen posible; bat soilik aldatuz gero besteak indartuz neutralizatu zitekeelako. Zentzu honetan, sufragistek emakumearen egoera

¹⁴ Adrienne Rich, *Nacemos de mujer...*, 109.

¹⁵ Adrienne Rich, *Nacemos de mujer...*, 137.

¹⁶ Kate Millet, *Política sexual...*, 86.

sozioekonomikoa ez zuten ukitu ere egin, patriarkatua horretara moldatu zelarik, eta lortutako aldaketak neutralizatu zituelarik.

2.2. Sistema patriarkal eta kapitalista

Feminismoa kapitalismo eta patriarkatuaren erlazioaz berehala konturatu zen, Amelia Valcarcelek ideia hori ongi azaldu zuen bezala: “*El patriarcado era un sistema de dominación, el capitalismo de explotación y el patriarcado capitalista una improvisada síntesis.*”¹⁷ Iraultza burgesek instituzio eta balore burgesak berrestearekin batera, emakumearen zapalkuntza ere berretsi zuten. Emakumea ama eta emazte paperera mugatu zuten eta espazio pribatu eta itxietara. Hasiera batean, kulturak eta legeek hori babestu zuten, XIX eta XX. mendeetan legislazio baztertzailerik hori aldatzen joan zen baina horrek ez zuen praktika diskriminatzaileen bukaera ekarri; mekanismo kultural eta kontrol sozialak jarraitu egin zuten. Genero sistemak subalternitate mekanismoak produzitzeko marko ezin hobea sortu zuen, horrek emakumeen menpekotasun eta desberdintasunaren iraunkortasuna bermatu zuelarik.¹⁸ Bigarren olatuko feminismoak hori argi ikusi zuen. Horren aurrean erantzun desberdinak eta eztabaidak eman ziren. Zein zen zapaltzaile nagusia, kapitalismoa edo patriarkatua? Eta zein borroka, sexua sexuaren kontra edo klasea klasearen kontra?

68an feminismoa *berpiztu* zenean, orokorrean talde erradikal eta ekintza politikoen barnean izan zen, ezkerrekin, marxismoarekin edo freudomarxismoarekin lotuta, salbuespenak salbuespen.¹⁹ XIX. mendetik sozialistek emakumeen subordinazioa eta liberazioa errekonozitu zuten arren, sozialisten kezken artean gai subsidiarioa izan zela ezin daiteke ukatu. Iraultza sozialista gertatzean emakumearen zapalkuntzaren bukaera berez etorriko zela pentsatzen zuten, baina historiako adibide batzuek hori gezurtatu zuten eta gainera hori gertatu bitartean itxaroteari uko egin zioten feministek. Horrela, sozialista asko mugimendu feministaren barnean sartu ziren, Juliet Mitchell horietako bat izanik.

Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetan ere ideia hauek mahai gainean jarri zituzten, ezkerrearen eta aipaturiko pentsalarien eragina oso argia izanik: “(...) *en una sociedad*

¹⁷ Amelia Valcácel, “¿Es el feminismo una teoría política?”, en Carmen Martínez Ten et al. (ed.), *El movimiento feminista en España en los años 70* (Madrid: Cátedra, 2009), 182.

¹⁸ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 25.

¹⁹ Amelia Valcarcel, “¿Es el feminismo...”, 177.

capitalista, fundamentada en la propiedad privada y en la división del trabajo por sexos, no se puede dar la liberación de la mujer.”²⁰

2.3. Feminismo korronte ezberdinak.

Aipatu bezala Bigarren Olatuko Feminismoa oso anitza izan zen eta ondorioz feminismo mota eta korronte ezberdinak sortu ziren. Feminismo liberala alde batera utziz, esan dugunez dominazio patriarkalaren formak sistema kapitalistarekin loturik zeudela berehala konturatu ziren eta hori eguneroko bizitzan eta legetan antzematen zela. Gizonaren autoritatea politikan, lanean, familian, kalean... ezartzen zen eta bere nagusitasuna gizarte eta garai desberdinetan eta modu desberdinetan adierazi zen, betiere konstante bat mantenduz; emakumearen gutxiagotasun naturala eta boterearekiko marjinazioa.

Mugimendu feministan zatiketak egon ziren gaiak aztertzeko partelazioarengatik eta ondorioz talde desberdinak sortu ziren, Fini Rubioren hitzetan: *“La razón fundamental se encuentra en las distintas concepciones respecto de las causas de la opresión de la mujer y, en consecuencia, en las distintas estrategias que se establecen para su superación.”*²¹ Horrela ere antolakuntza modu desberdinak sortu ziren, militantzia bakarra eta militantzia bikoitzaren arteko eztabaida sortuz.

Fini Rubiok 1977an emakumearen zapalkuntzaren inguruko lau hipotesi desberdin azaldu zituen. Lehena, ezker ortodoxoaren planteamendua; horien ustetan emakumearen zapalkuntza soberakinen bereganatzearekin bat sortu zen. Gizarte sozialistetan hori ezabatuko zenez, emakumearen liberazioa eskutik helduta etorriko zen, eta horren ondorioz emakumeak euren borroka orokorretara batu behar ziren. Talde feministak burgeztzat hartu zituzten eta horrek euren arteko harremana okertu.

Bigarrenak feminista erradikalak ziren, zapalkuntzaren sustraia bilatu eta aldatu nahi zutenak. Horrela zapalkuntzaren bi azalpen desberdin garatu zituzten; batetik, gizakiaren lehen diferentzia arrazoi biologikoetatik sortu zen, Engelsek zioen bezala eta horren gainean eraiki ziren desberdintasun kulturalak abolitu behar zirela. Bestetik, familia zela zapalkuntza iturria zela zioten, eta horri aurre egiteko lanaren kolektibizazioa edo

²⁰ “Consideraciones sobre la situación de la mujer”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak I, 39.

²¹ Fini Rubio, *Marxismo y liberación de la mujer* (Madril: Dédalo, 1977), 16.

soldatapeko lana izatea aldarrikatu. Feminista erradikalek emakumea, klase bezala eta familia, produkzio modu bezala definitu zituzten.

Hirugarrenik, zapalkuntzaren aspektu psikologikoei garrantzia ematen zieten korrontea sortu zen, horren baitan Juliet Mitchell aurkitzen dugularik. Zapalkuntzaren jatorria errealitate material eta estruktura ekonomikoetatik ideologikoa izatera pasa zela babestu zuten. Mugimendu kontrakulturala zen, inkontzientea argitu eta kontzientziatu nahi zutenak izanik.

Azkenik feminista-sozialistak ditugu, feminismoa eta klase borroka batu zituztenak. Desberdintasun fisiologikoak zapalkuntzaren kausa ziren: “(...) *en la medida que de ellas se desprende una división del trabajo en función del sexo que conlleva la marginación de la mujer de las esferas de poder.*”²² Honen aurrean emakumearen borrokak kontraesan bikoitza jasan behar zuen; patriarkala eta kapitalista.

Korronte hauek desberdintzea askotan zaila da, ekintza batzuk elkarrekin egin baitzituzten eta zentzu askotan, nahiz eta desadostasunak handiak izan, beste batzuetan ideia komunak zituzten. Emakumearen zapalkuntza onartu eta emakumea subjektu bezala hartzen zuten guztiek, subjektu horrek emakume guztien interesak defendatzen zituelarik eta borrokaren helburu komunak bateratzen zituelarik. Ezin dugu ahaztu ere, mugimendu bat izanik, bertako ideien eboluzioa nabaria izan zela, egoera eta planteamenduak etengabe aldatuz.

Pentsamendu eta ideologia honekin borrokatzeari ekin zioten. Esan bezala, borroka forma eta dinamika berriak sortu zituzten, emakumeen identitate kolektiboa eraiki behar zutelarik lehenik: “*Como ha señalado Amorós, era crucial para el feminismo plantearse la idea del sujeto del feminismo en el proyecto de transformación del sistema jerárquico de género y del patriarcado.*”²³ Hitz berriak sortu eta erabili zituzten egoera definitzeko eta azaltzeko, subalternitatea azaltzeko hain zuzen, hala nola, patriarkatua, sexismoa, politika sexuala. Idatzi asko egin ziren eta oso azkar zabaldu, marxismoari, Freudi, psikoanalisari, historiari, psikologiari, sindikalismoari, filosofiari... kritikak egiten hasi ziren ikuspuntu feminista batetik.

Kontzientziazio taldeak oso garrantzitsuak izan ziren, zapalkuntza identifikatzeko klabea. Mary Nashen hitzetan: “*Romper el silencio, encontrar su voz y nombrar sus problemas*

²² Ibídem, 23.

²³ Mary Nash, *Mujeres en el mundo...*, 169.

fueron elementos decisivos en el impulso de un movimiento configurado a partir de una opresión no reconocida ni identificada.”²⁴ Mugimendu politikoa zela aldarrikatu zuten eta atentzioa deituz eta keinu subertsiboak eginez ekin zioten borrokari. Iritsi zaigun lehen berria 1968an AEBn Miss Amerikaren kontrako martxa izan zen, takoiak, kosmetikoak eta bularretakoak desfilera botaz. Desobedientzia zibila praktikatu zuten emakumearen zapalkuntzaren ezkutuko mekanismoak ikustarazteko. Erreprodukzio, berdintasun eta hezkuntza eskubideak aldarrikatu zituzten. Talde feministak azkar ugaritzen joan ziren, aniztasun handikoak izanik eta testuinguru sozial, politiko eta kulturalen arabera moldatuz. Autonomia sexuala eta gorputzaren askatasuna eztabaidagai izan ziren, ezkontza zapalkuntzaren iturria zela salatuz. Botere maskulinoari teorian eta praktikan desafio egin zioten: “*Rompió muchos estereotipos sobre la frigidez femenina y la tradicional imagen negativa acerca de la manifestación del placer sexual femenino.*”²⁵ Abortuaren legalizazioaren alde egin zuen eta genero indarkeria salatu, horren inguruko isiltasuna hautsiz. Testuinguru honetan feminismo lesbianoaren agerpena aipatu behar dugu eta horrekin sexualitate heterosexualaren inguruko zalantzak eta alternatibak. Talde askok gizonik gabeko espazioak bilatu zituzten.

3. 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak

Mugimendu hau zabaltzen joan zen, Euskal Herrira ere iritsi zelarik. Iparraldean 60. hamarkadan garatu zen eta talde feministak denbora gutxian ugaritu. Hegoaldean berriz egoera oso desberdina zen; 60. hamarkada bukaeran Frankoren diktadura indarrean zegoen eta horrekin eskubide politiko eta iritzi askatasuna oso mugatuak ziren. Frankismoaren planteamendua nazionalkatolikoa, autoritarioa, hierarkikoa eta paternalista zen eta emakumea espazio pribatura mugatu zuen lege diskriminatzaile bidez. Besteak beste *Fuero del Trabajo*, *Ley de Enjuiciamiento Civil* eta kodigo penalaren bidez. Elizak eta Falangeko emakume sekzioak bestetik, emakumearen rol *naturala* babestu eta hori hezkuntza bidez barnerarazi zuten. Diktadura amaitzean, feministek ahalegin handiak egin behar izan zituzten gizartean hain barneratua eta naturalizatua zegoen pentsamendu horri aurre egiteko.

²⁴ *Ibíd.*, 177.

²⁵ *Ibíd.*, 193.

Trantsizioa eta feminismoaren indartzea batera eman zen askatasun indibidual eta kolektiboen zabaltzearekin. Horregatik, Espainiar Estatuko feminismoa, langile borroka eta borroka antifrankistarekin oso loturik egon zen. Hiru arlotako aldarri eta eskaerak izan ziren nagusi eta instituzioetan eta kalean aldarrikatu zituzten. Eskubide indibidualak; antisorgailuen, dibortzioaren eta abortuaren legalizazioa eta hezkuntza diskriminatzailearen ezabatzea. Autonomia ekonomikoa eta lan eskubidea bermatzea eta azkenik lege diskriminatzaile eta sexisten abolizioa. Horrez gain, topaketak, eztabaidak eta estrategia desberdinak erabili zituzten eta mito eta tabuak deuseztatzen saiatu ziren.²⁶

Horrela Hego Euskal Herriko emakumeen liberazio borrokan bi aspektu kontutan hartzekoak dira; batetik, kanpoko mugimenduen eragina eta bestetik Euskal Herriko egoera propio eta berezia. Frankismo garaian auzo antolakuntzen baitan emakumeen taldeak sortzen hasi ziren, emakumearen diskriminazioaren kontra borrokatzeko. Emakume talde hauek izan ziren bigarren olatuko feminismo autonomoaren oinarri eta horiek izan ziren 1975eko abenduan Madrilen egin ziren I. Topaketa Feministen antolatzaile bai eta 1976ko Kataluniako eta 1977ko Euskadikoenak ere. Auzo antolakuntzetan zeukaten elkargunea ere ezkerreko mugimenduek eta ondorioz, borroka sozial eta politikoek mugimendu feministan eragina izan zuten. Orduetik aurrera, emakumearen zapalkuntzaren inguruko eztabaidek eta militantziaren ingurukoek korrante eta kontzepzio feminista berriak sortuko zituzten.

Euskal Herrian mugimendu honek izan zuen presentzia, eragin, berezitasun eta eztabaidak ikusteko 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetara jo dut. Leioan egin ziren eta bertan zazpi probintzietako emakumeak batu ziren nahiz eta proportzio desorekatuan. Bizkaitik 447, Gipuzkoatik 212, Arabatik 38, Nafarroatik 43, Iparraldetik 4 eta beste tokietatik 39.²⁷ Topaketa hauetan, talde feminista desberdinek eta ideologia anitzeko emakumeek parte hartu zuten eta nahiz eta Euskal Herriko mugimendu feminista osoa hartzen ez zuten, esan daiteke garrantzitsuak izan zirela eta mugimenduko berezitasun eta eztabaiden isla.

3.1. Barne eztabaidak

²⁶ Carmen Martínez Ten eta Purificación Gutiérrez López, “Prólogo”, in Carmen Martínez Ten et al. (ed.), *El movimiento feminista en España en los años 70* (Madrid: Cátedra, 2009), 12-13.

²⁷ “Datos de la encuesta realizada en las jornadas de la mujer en Euskadi”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 131.

Lehenago aipatu bezala, eztabaida teoriko eta praktikoak eman ziren mugimendu honen baitan. Batez ere, talde erradikal eta inspirazio marxisten artean zapalkuntza formari dagokionean. Emakumea klase bat da berez, klase zapaldu bat edo talde biologiko, inter-klasista eta globalki zapaldua? Zein da kontraesan nagusia, klasearena edo generoarena? Borroka feministak emakumea askatuko du soilik edo klase zapaldu guztiak?

Testuinguru honetan beste eztabaida batzuk sortu ziren, aurrekoekin loturik baina beste dimentsio batean. Eztabaidaren nukleoa diferentzia biologikoa desberdintasun sozialean bihurtzearen kausa bilatzea izan zen. Horrela hasi ziren zatitzen berdintasunaren feminismoa eta diferentziaren feminismoa. Honekin batera antolatzekeo aldarrikapen desberdinak egin ziren diferentziakoak militantzia bakarra aldarrikatuz eta berdintasunezkoak militantzia bikoitza.

Diferentziaren feminismoak ez zuen berdintasuna eskatzen, emakumeen autonomia baizik, nolakotasun femeninoak garatzeko helburuarekin. Berdintasuna, gizonen berdina izatea, maskulinitatera hurbiltzea esan nahi zuela ikusten zutelako aldendu ziren kontzepzio horretatik. Emakumearen ezaugarri biologiko propioak aldarrikatu zituzten eta positibo bilakatu feminitatea. Hauen ustez, neutraltzat hartzen zena maskulinoa zen, gizarteko balore positiboak beraz maskulinoak izanik. Berdintasuna aldarrikatzen bazuten maskulinitate horretara hurbiltzea esan nahi zuen. Orokorrean korrante honek militantzia bakarra aldarrikatzen zuen, Fini Rubioren ustez, feminismoa sistema globala zenaren kontzepzioa zuelako, hau da: “(...) *alternativa que abarca y comprende todas las otras contradicciones inherentes en la sociedad capitalista.*”²⁸ Horretaz gain, bi kolektibotan militatzen bazen bati lehentasuna ematen ziotela uste zuten, borroka feminista beti bigarren planoan geratzeko arriskuarekin. Partidu eta sindikatuek feminismoa euren intereserako erabiltzen zutela salatu zuten militantzia bakarraren aldekoek eta horregatik horietaz independente izan ziren.

Berdintasunezko feministek ordea kontzepzio hori oso arriskutsua zela ikusi zuten, afektibitate eta sentsibilitate femenino propioak onartzea oso hurbil zegoelako *betiereko femenino* horretatik. Emakumeen kontra bihur zitekeen orduan, emakumeen leku tradizionala berretsiz, Celia Amorósen hitzetan: “(...) *reintroduciéndose en cierta falacia naturalista aquí también la anatomía es un destino aunque se desee gozoso; (...) cargando*

²⁸ Fini Rubio, *Marxismo y liberación...*, 16.

*a las mujeres con el peso de la bondad de la especie (...)*²⁹. Hauek militantzia bikoitzaren alde egiten zuten orokorrean, feminismoa gizartearen kontraesan baten eztabaida teoriko eta praktikotzat hartzen baitzuten eta ez kontraesan guztien soluzio. Gainontzeko kolektiboetan emakumeen presentzia beharrezkoa zela aldarrikatu zuten, horien barneko eredu patriarkala aldatzeko, barnetik hasteko hain zuzen eta bestetik, sistema kapitalistaren kontraesanei aurre egiteko.

Ezadostasun hauen arrazoa emakumearen zapalkuntzaren kausen kontzepzio desberdinetan eta horri aurre egiteko estrategia desberdinak izan ziren. Celia Amorosen hitzek ongi azaltzen dute eztabaida hau: “(...) *si el feminismo era “una alternativa global de sociedad”, incluyendo el socialismo (...) o bien una alternativa parcial.*”³⁰ Topaketetan eztabaida edo teoria desberdin hauen presentzia antzematen da. Lehenik topaketa hauetan aniztasun handia egon zela argitu behar da eta idatzietan ere hori argi ikusten da, horrekin batera feminismoaren eta militantziaren arteko eztabaida emanez.

Batzuek gizarte kapitalistan emakumearen liberazioa ezinezkoa zela eta gizarte sozialistaren eraikuntza beharrezkoa zela aldarrikatu zuten, horrekin batera borroka feminista uztartuz.³¹ Besteek emakumeen mugimendu independente baten alde egin zuten, partidu politikoei autonomia hori errespetatzeko eskatuz.³²

Diferentziaren feministek kontraesan nagusia estruktura patriarkalarekikoa zela uste zuten eta ideologia iraultzaileak hori bigarren maila batera alboratzen zuela, horien ustez kontraesan nagusia klasearena izanik, hori gainditzean emakumearen liberazioa emango zenaren ustea zuten. Diferentziako feministek berdintasunekoekin bat zeuden kapitalismoan emakumearen liberazioa emango ez zela esatean baina partiduek emakumeen interesak jasotzen ez zituztela ikusi zuten eta horien barnean gainera jarrera sexista hegemonikoa ematen zela.

Partidu iraultzaileetako emakumeek horren aurrean euren interpretazioa eman zuten, EMK eta LKiko emakumeek hain zuzen; militantzia bikoitzak langile klasearen borroka eta gainontzeko zapalduen borroka uztartzeko modua zela aldarrikatu zuten. Biak

²⁹ Celia Amorós (koord), *Historia de la teoría feminista* (Madrid: Comunidad de Madrid, 1994), 210.

³⁰ Celia Amorós, “Debates ideológicos en el movimiento feminista durante la transición española”, in Carmen Martínez Ten et al. (ed.), *El movimiento feminista en España en los años 70* (Madrid: Cátedra, 2009), 197.

³¹ “Consideraciones sobre la situación de la mujer”, in Euskadiko..., 40.

³² “Planificación familiar”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 28.

beharrezkoak zirelako, estatu burgesaren amaierak soilik ez zuen emakumearen liberazioa ekarriko baina emakumearen liberazioa emateko klase kontraesana amaitzea beharrezko zen.

Militantzia bikoitzaren inguruan talde asko sortu ziren, Euskal Herriko ezkerreko mugimenduekin loturik. 1976an Euskal Emazteak Beren Askatasunaren Alde taldea sortu zen, nazio askatasunerako borroka eduki antipatriarkalez hornitzeko helburuz. Emakume talde autonomo honek, garaiko Ezker Abertzalearen barnean antolatuz Ipar eta Hego Euskal Herriko emakumeen batasunaren alde egin zuen eta zapalkuntza hirukoitzaren lehen teoria planteatu. Urte baten ostean ordea, Iparraldeko eta Hegoaldeko mugimenduak bide propioa egiten hasi ziren. 1978. urtean emakume batzuk KAS (Koordinadora Abertzale Socialista) barnean antolatzen hasten dira; “(...) *el ir avanzando hacia una Euskal Herria independiente, socialista, reunificada, euskaldun y no patriarcal.*”³³ Ez zuten planteatutakoa lortu, oraindik ere borroka antipatriarkala bigarren plano batean utzi zutelako. Aurrerago Aizan (1981-87) eta Egizan (1987) sortuko dira, Ezker Abertzalearen barnean gizartean bezala sistema patriarkala naturalizat hartzen zela konturatuz eta horri aurre eginez.

1977an, plano zabalago batean, militantzia eta ideia anitzeko kideek parte hartuz Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketak egin ziren eta borroka honen indartzearen ondorioz Emakumeen Asanbladak eta Nafarroako Koordinadora Feminista sortu ziren.

3.2. Sexualitatea

Mugimendu honen berrikuntzetako bat zapalkuntza ekonomiko eta politikoaz gain patriarkatua aspektu eta maila guztietan erreproduzitzen zela konturatzea eta horren inguruan hipotesi eta borroka eredu desberdinak planteatzea izan zen. Sexualitatearen inguruko zapalkuntzaren kontra nabarmenki aritu ziren, batez ere kontzientzia garatuz eta hain barneratuta zeuden ohitura eta jarrera sexistak ikustarazten saiatuz. Askatasun sexualaren inguruko gogoeta sakon eta iraultzailea egin zuten, emakumei inposaturiko sexualitatea zalantzan jarriz eta aldatzen saiatuz, arlo pertsonaletik politikora igaroz. 1977ko Euskadiko Emakumeen Lehen Topaketetan lehen jardunaldia sexualitatearen

³³ VV.AA., *La mujer en Euskal Herria: hacia un feminismo propio* (Donostia: Basandere, 2001), 196.

ingurukoa izan zen. Atal honetan jardunaldi honetan botatako ideiak azalduko ditut, garaiko erreferenteen ideiekin lotzen saiatuz.

Bertan rolen eta paperen banaketaren inguruan aritu ziren; gizonen mundu batean biziak, gizonen gidatzeko, erabakitze eta transformatzeko betekizuna zutela esan nahi zuen. Horrela, beste sexuak espeziea mantendu eta erreproduzitzeko papera izanik, bai eta ondorengoei gizarte horretako ideologia eta ohiturak transmititzeko ere.

Sexualitateari buruz hitz egitea soilik, askatzailea zela konturatu ziren, eta sexualitatearen baitan faktore psikiko, fisiko, afektibo eta politikoak zeudela. Gizarte kapitalista eta matxistak sexua familia monogamora mugatzen zuen eta emakumeak bere papera ongi bete zezan sexualitatea ezeztatzen zitzaion, tabuak oso baliagarri izanik horretarako. Horrela, emakumeari bere gorputzaren kontrola ukatu izan zitzaion. Honen inguruan aritzea eta kontzepzio horiei aurre egitea oso zaila izan zen, arau sozialekin talka handia suposatu zuelako.

Erlazio sexualak, dominazio sinbolo zirela antzeman zuten, gizonen autoritatea arlo guztietara iristen zela ikusiz. Simone De Beauvoir, Kate Millet eta Adrienne Rich ere honen inguruan aritu ziren eta oinarri sendoak jarri sexualitatearen inguruko eztabaida eta hausnarketak bideratzeko. Mito eta tabuak aztertu zituzten batez ere, horiek, gizonari interesatzen zitzaion emakumearen papera sortu eta barneratzeko tresnak zirelako. Milletten aburuz: *“Todos los sistemas de opresión han inventado (...) un sinfín de fábulas relativas al beneficioso efecto producido por su despotismo sobre sus subordinados (...)”*³⁴. Bestalde, sexuaren kontzepzio desberdinak antzeman zituzten, sexua plazerraz gain, konkista ere bazela azalduz eta kristautasunak mito eta emakumearen irudiak bere interesen arabera modelatu zituela; emakumea eta gaizkia lotuz, sexua bekatu bihurtuz.³⁵

Freud-ek emakumearen sexualitatearen inguruko irudi okerra eman zuen gainera, feministek hori oso argi salatuz, de Beauvoir, Mitchell eta Millett tarteko. Emakumearen definizio negatiboan oinarritu zen Freud eta patriarkatuari babes zientifikoa eman zion garaiko soziologiak eta antropologiak egin zuen antzera. Kate Millettek adibidez, Freud 1930 eta 1960 urte arteko erreakzio ideologikoaren eta kontrairaultzaren barnean kokatzen du. Hau da, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran eginiko emakumeen eskubideen lorpenen kontrako gurutzadak errepresio ofizialaz gain zientzia sozialen babesa

³⁴ Kate Millet, *Política sexual...*, 143.

³⁵ Simone de Beauvoir, *El segundo sexo...*, 256-257.

izan zuen, horren ordezkari handiena Freud bera izanik. Freudek gizonaren nagusitasuna naturala zela oinarri hartuta, emakumeak menpeko egoera saihestezina onartu behar zuela zioen eta izaera sexuala biologikoa eta genetikoa zela. Honi kontra eginez Millettek jatorri sozialeko arazoak antzeman ez zituela kritikatu zuen: “(...) *Freud confunde lo innato con lo adquirido y considera naturales los efectos culturales del dominio ejercido por el varón.*”³⁶ Hala ere, Freudek planteatutako printzipio horiek bere jarraitzaileen artean hedatu ziren bai eta beste zientzia sozial batzuetan, eta horiekin, talka handia izan zuten bigarren olatuko feminismoaren ideiek, guztiz kontrakoa aldarrikatu baitzuten; biologian eta genetikan oinarritutako menpekotasun saihestezinaren aurrean feministek patriarkatua eraikuntza sozial eta kultural aldagarria zela adierazi zuten.

Topaketetan biolazioaren inguruan ere aritu ziren; bortxaketa gorrotoaren muturreko ekintza zen, zapalkuntza, jabetza eta gutxiespenaren erakusgarri. Erlazio sexualak botere erlazioak zirela jabetu ziren; hori horrela ez balitz eta emakumeen gorputza jabetza objektua ez balitza, biolazioa ez zen existituko eta ez zen sistema patriarkalaren tresna izango:

*“Esta concepción de la mujer como ser a dominar y poseer cumple en nuestro sistema la función de válvula de seguridad: todo hombre explotado tiene alguien a quien oprimir. Así, los violadores no son sólo víctimas del sistema capitalista, son también sus cómplices.”*³⁷

Biolazioa emakumearen borondatearen kontrako koittoa soilik ez zela azaldu zuten; piropoak, anuntzioak, beldurra, senarrari plazerra emateko obligazioa... ere bazela pentsatzen zuten. Gizarte patriarkalean emakume izatea pertsona biolatua izatea zen. Honi aurre egiteko, kausa eta ondorioei aurre egin behar zitzaien baina ez soilik tribunaletan, maila kultural eta sozialean ere bai, arlo publiko eta pribatuan.

Gai honi dagokionean, Simone de Beauvoir falozentrisismoaren inguruan ere aritu zen mito baten adibidea hartuz. Kate Millettek mito bidez koittoa boterearen printzipioan oinarritutako erlazioa zela esan zuen, batek bestea menperatzen baitzuen. Sexu ohiturak botere erlazio eta menderakuntza zirela eta garaiko sexualitatea zapaltzailea eta irakatsia zela salatu ondoren horri aldatzeari ekin zioten, horretarako hezkuntza berri bat, gorputzaren askatasuna, medikuntzaren kontrola aldarrikatuz.

³⁶ Kate Millet, *Política sexual...*, 333.

³⁷ “La violación”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 19.

Emakumeak masturbatzen ez zirenaren ideia oso zabaldua zegoela argitara eramán zuten, emakumearen sexualitatea existitzen ez zenaren ideiarekin lotuta. Horrekin batera ordezeko praktika bezala hartzen zela ikusi zuten, balioa kenduz eta autoezagutza, autoesplorazio eta dibertsio tresna bezala ukatuz. Topaketetan hurrengo aldarrikatu zuten:

“Gure sexual atseginerako, zirrikaketa organo nagusia klitoria dela deritzagu, beraz gure atseginak ez du zer ikusirik ez ernalketerekin, ez antisorgailuekin, ez eta ere haurregotzarekin (abortuarekin). (...) Kopulan bukatzen den ekintza sexuala onartzen dugunean, hau da gizonaren orgasmoa maginan onartzen dugunean, falokratika den kultura bat berresten dugu behin eta berriro, antisorgailuekin, abortoarekin eta nahi ez dugun erditzearekin kateatzen gaitularik.”³⁸

Benetako askatasuna, plazer sexuala soilik gizonaren plazerraren arabera izateari uztean izango zela aurreikusi zuten, erreproduktioari lotuta agertuko ez zenean, eta orientazio sexuala libreki aukeratu zitekeenean. Garaiko sexu harremanak, irakatsiak zirela eta interes batzuei erantzuten ziela salatu zuten eta praktika sexualak aldatu behar zirela esan, aurreko aipuan azaldu zuten moduan. Ideia hauek talka handia suposatu zuten garaiko ohitura eta tradizioekin, sexua gaizkia eta iluntasuna zenaren ideia horiekin hain zuzen.

3.2.1. Hezkuntza

Familia, unitate produktibo eta erreproduktibo bezala antzeman eta analizatu zuten eta horren baitan emakumearen papera erreproduktiboa eta hurren sozializaziora bideratua zirela, hurrei sistema horren balioak transmititzekoa hain zuzen. Bi suen artean zeudela konturatu ziren; batetik Elizaren, aiten, eskolaren eta familiaren mezua, ama eta emazte izatearen paperera mugatuz eta bestetik, eta aurrekoarekin kontrajarrita, prentsa femeninoak, publizitateak ezarritako emakumeen irudia.³⁹

Bi ereduak gizonaren interesen arabera ziren gainera; lehena, emakumea objektu erreproduktoreekin identifikatzen zutenak eta bigarrenak, gizonaren plazer objektuekin. Hori guztia ukatu nahi zuten; txikitatik gizonen desberdin tratatzen zen emakumea eta

³⁸ “Sexualtasuna (sexualitatea)”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 13.

³⁹ “Sexualidad femenina”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 9.

desberdintasunak naturalak zirela barneratzea ahalbidetzen zuen horrek, diskriminaziorik ez zegoela sinestaraziz. Hori ordea, horrela ez zela aldarrikatu zuten eta hezkuntza horren ondorio eta irakatsiak zirela jokabide eta izaera desberdinak; emakumeen sumisioa eta iniziatiba eza, eta gizonen agresibitatea besteak beste. Nesken sexualitatearen errepresioa salatu zuten; errepresio hori hain zen handia, ezen nesken sexualitateak existitzeari ere utzi ziola, eta horri kontra eginez emakumeen sexualitate librearen errebendikatu zuten.⁴⁰

Nerabegarora iristean ordea edertasun mota bat existitzen zela soilik erakusten zutela ohartu ziren, edertasun komertzial eta publizitarioa. Guzti honek emakumeen izatea baldintzatzen zuen eta sexualitate libre bat lortzeko lehenik eta behin bakoitzaren sexualitatea ezagutu behar zela uste zuten, baldintza horiek apurtzea ezinbesteko izanik.

Garaiko gizarteko emakumea gaztea, osasuntsua eta ederra, inpotente eta pasiboa izan behar zuen, arropa deserosoak, makillajea, bitxiak, takoiak, kortseak... objektu bihurtzeko tresna izanik. De Beauvoirren esanetan: *“En la mujer adornada, la Naturaleza está presente, pero cautiva, modelada por una voluntad humana de acuerdo con los deseos del hombre.”*⁴¹

Garaiko hezkuntza diskriminatzailea aztertuta eta horretan familia patriarkalak zuen garrantziaz ohartuta, hezkuntza berri eta askatzailea sistema patriarkala abolitzeko baliabideak hartu zuten, irakatsitako menpekotasunaren kontra oldartuz.

3.2.2. Erreproduzioa, amatasuna eta sexu askatasuna

Topaketetan azaldutako ideietako bat sexualitatea, gizakiaren plazer eta komunikazio aukeren garapen bezala ulertuta, gizonena zela soilik izan zen, emakumearen sexualitatea amatasunera eta erreproduziora mugatzen baitzen. Horrek horrela jarraitzeko debeku eta presioen babesa zuen; antisorgailuen salmenta debekatzen zuten legeak, abortua delitu izatea, ez askoz lehenago indarrean zegoen adulterioaren kondena besteak beste. Elizak ere emakumeen ama eta emazte paper tradizionalera mugatzeko ahalegina egiten zuen etengabe, emakumearen sexualitatea eta erreproduzioa sinonimotzat hartuz. Emakumearen sexualitatea beraz guztiz erreprimetuta eta kontrolatuta zegoen,

⁴⁰ Ibídem, 10.

⁴¹ Simone de Beauvoir, *El segundo sexo...*, 247.

patriarkatuaren interesen preso izanik: “*De esta manera, la sexualidad femenina se ejerce en un medio hostil lleno de miedos e inhibiciones.*”⁴²

Richen aburuz, amatasunaren gaia oso gutxi ikertua izan zen eta tabu eta faltsukeriaz beteta zegoen. Amatasuna analizatzeko bi esanahi desberdin zituen; batetik, emakumeak erreprodukzio kapazitatearekin eta seme-alabekin duen erlazio potentziala da eta bestetik, amatasunaren instituzioa, horren helburua potentzial hori kontrol maskulinoaren menpe egotea izango zelarik.⁴³

Horrela, emakumearen bizitzako helburu eta zentzua amatasuna zenaren ideiarekin kontra egin zuten feministek. Emakumeak beren bizitza eta gorputzaren jabe zirela aldarrikatu zuten eta amatasuna aukeratu zitekeen zerbait izan behar zuela, ez derrigorrezkoa eta berezkoa, ez eta emakume izateko baldintza. Richek amatasunaren instituzioa abolitu behar zela esan zuen, emakumeak askatasuna lortzeko derrigorrezko pausua izanik. Emakumeen sexualitatea liberatu behar zen beraz, derrigorrezko amatasun eta erreprodukziotik askatu; sexualitate berri bat sortuz, beldurrak gaindituz eta hezkuntza berri eta askatzailea horretarako tresna izanik.

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, erreprodukziora mugatutako sexualitateak edo kontsumoak manipulatuak, ez zuela emakumea askatuko ohartarazi zuten. *Delito femenino* izenez ezagutzen ziren legeak abolitzea eskatzen zuten baina bai eta emakumearen aukeratzeko eta bere gorputzaren jabe izateko eskubidea ere.

Emakumeen homosexualitatea gizartearen imaginarioan existitzen ez zela konturatu ziren, emakumeen sexualitatea orokorrean ukatzen zelako. Hori ikustarazten saiatu ziren eta erlazio homosexualetan sistema matxistaren rolak erreproduzitzea askoz zailagoa zela eta berdinen arteko erlazioa izateko askoz errazagoa zela konturatu ziren. Bestetik, gizarte patriarkalaren aurkako mehatxua zela ohartu ziren, horren oinarriak suntsitzen zituelako. Kontzepzio horrekin, hasiera batean homosexualitatea tolerantzia eta askatasunaren ideietan babestu zen, bakoitzaren erabakitzeko eskubidearen ideian babesturik hain zuzen, baina 80. hamarkadatik aurrera, batez ere, aukera politiko bezala ikusi zen. Hau da, patriarkatuari kontra egiteko bizimodu bezala.⁴⁴

⁴² “La sexualidad de la mujer en nuestra sociedad”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak I, 36.

⁴³ Adrienne Rich, *Nacemos de mujer...*, 47, 48

⁴⁴ Pilar Escario, *Lo personal es político: el movimiento feminista en la transición* (Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, 1996), 189-190.

Heterosexualitatea zentzu horretan ere presionatu behar zela antzeman zuten, aldatzeko eta erlazio libre batean bihurtzeko. Zakil-bagina eskema bakarra ukatu zuten; horren baitan erreprodukzioa, emakumearen pasibotasuna, eta sadomasokismoa elikatzen zirela uste baitzuten: *“La sexualidad establecida, que es sucia, que se hace oscura, que se vive con miedo, que se está impuesta, se reduce a los órganos genitales.”*⁴⁵

Gizonaren araberako sexualitatea ezarrita zegoen beraz, bere beharren araberakoa. Hala ere, askatasun sexualaren inguruan kontu handia izan behar zela jakinarazi zuten, Mitchell tarteko⁴⁶, emakumearen liberazioa izan zitekeelako baina bai opresio modu berria ere.

3.2.3. Medikuntza, antisorgailu eta abortua

Feministentzat medikuntza sistema patriarkal eta matxistaren kolaboratzaile zuzena zen; emakumeen sexualitatea erreprimitzen baitzuen eta horri aurre egiteko bakoitzaren gorputzaren ezagutza eta funtzionamendua ezagutzea ezinbestekoa zela. Medikuntza, antisorgailuen eta abortuaren kontrola gizonena zen eta euren interesen araberakoa, sistema patriarkalak gidatzen zituelarik. Planifikazio familiarra ere Estatu Batuetako eta Europako klase dominantzaileen interesen araberakoa zen, populazioa kontrolatzeko. Antisorgailuen erabileraren aldeko aldarria egin zuten baina ahaztu gabe horrekin batera sexualitate berri bat garatzea beharrezkoa zela, koitoaren zentralismo horrekin hautsiz.

Abortua topaketetako feminista batzuek behin behineko tresnatzat hartzen zuten, etorkizunean deuseztatu beharko zena sexualitate berri eta libre baten eraginez. Abortua legalizatzea beraz, neurri erreformista zen, ez iraultzailea. Abortua aurrera eramateko kausak antisorgailuen informazio eza edo erosmen ahalmena ez izatea, zapalkuntza eta biolentzia ziren, besteak beste. Horiek gizarte patriarkalaren ondorioak izanik, sexualitate berriaren garapena izango litzateke iraultza, sexualitate eta erreprodukzioaren arteko lotura hausten zuena, sexualitate genitaletik haratago zihoana:

“Todas aquellas medidas encaminadas a convertir un acto reproductor en no reproductor (...) son medidas que no cuestionan en realidad las relaciones sexuales

⁴⁵ “Sexualidad”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 12.

⁴⁶ Juliet Mitchell, *La liberación de la mujer...*, 60.

imperantes, que son, en la mayoría de los casos, frustrantes y castradoras, sobre todo para la mujer.”⁴⁷

Guzti hau moral katolikoaren, moral burgesaren eta medikuen boterearen ondorioz gertatzen zenaren ideia zuten eta ideologia menderatzaile horretaz baliatzen zela patriarkatua emakumearen papera erreprodukziora mugatzeko.

Horrela, ez zuten antisorgailuen erabilera erlazio heterosexual koitalen instituzionalizazioa bihurtzerik nahi.⁴⁸ Antisorgailuak beldurra kentzeko eta sexualitatea esploratzeko tresna izan behar ziren, sexualitate berri baten prozesu horretan. Erabiltzea aukeratzeko askatasuna ere emakumeei zegokien eta horretarako antisorgailuak legalizatu behar ziren, baina informazio kanpaina batekin batera, horien inguruko ikerkuntzarekin. Kapitalismoaren logikatik at egotea izan zen aldarrietako bat, antisorgailuak negozio izateari uzteko eta dohainik izateko:

“Por todo ello, sabemos que la forma de vida social y sexual está determinada por el modo de producción y distribución de los bienes, sólo cambiando profundamente estas formas de producción y distribución, de manera que las estructuras económicas estén en función de las personas y no a la inversa, es decir, solo en el marco de una sociedad socialista será posible el proceso de transformación de la mentalidades, cambio por el que ya estamos luchando las mujeres.”⁴⁹

Honen inguruan Richek ere teorizatu eta hausnartu zuen; erditze laguntzaile eta mediku papera gizonen hartu zuten denborarekin, horren inguruko autoritate eta kontrola emakumeei kendu zieten. Gai hau ere tabua izan zen denbora askoan, emakumeei bere gorputz eta prozesuen jakintza ukatuz. Erditzearen alienazioa kritikatu zuen eta erditzea gizonen autoritateak kontrolatutako esperientzia pasiboa izaten jarraitzen zuen bitartean beste aldaketa sozialek emakumeek euren buruekin dituzten erlazioak oso gutxi transformatuko zituztela; ez ziren botere harremanak aldatuko, ez munduarekiko harremanak ere ez.

⁴⁷ Lambroa, “Aborto”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 23.

⁴⁸ “Anticonceptivos y aborto”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak II, 26.

⁴⁹ “Planificación familiar”, in Euskadiko..., 28.

4. Ondorioak

Bigarren olatuko feminismoaren berezitasun nabarmenena, bizitzaren aspektu guztietan sistema patriarkala erreproduzitzen zenaren kontzientzia izatea izan zen, topaketetan azaldu zuten bezala: “*Esto quiere decir que conquistar la igualdad ante la ley no quiere decir conquistar la igualdad ante la vida.*”⁵⁰

Sufragismoak legearen aurreko berdintasuna, hezkuntza eta lanerako eskubidea defendatu zituen, baina hori lortu ondoren, 60. hamarkadan, horrek guztiak emakumearen liberazioa ekarri ez zuela konturatu ziren; nahiz eta aldaketa horiek potentzial handia izan, ideologia patriarkalak neutraldu zituela.⁵¹

Horren aurrean, bigarren olatuko feministek, sistema patriarkala aspektu eta alde guztietan erreproduzitzen zela salatu zuten eta pertsonen izatea definitzen zuela, feminitate edo maskulinitate eredu zehatzekin. Emakumea gizonaren araberakoa zen, bere izatearen eta bere gorputzaren jabe izan ezin zelarik. Patriarkatua, feminitatea eta rolak naturalak eta saihestezinak ez zirela konturatu ziren, eraikuntza soziokulturalak baizik eta ondorioz, aldatu zitezkeela. Horri ekin zioten beraz, borroka eta kontzientziazio taldeak sortuz, ohitura eta tradizio *naturalak* ukatuz. Ikusi dugunez, sexualitatearen berrikuspena oso garrantzitsua eta iraultzailea izan zen, ohitura eta erlazio sexuak kutsu patriarkala eta hezkuntzaren bidez jasotakoa zela aldarrikatuz, zapaltzailea eta gizonaren araberakoa izanik. Mugimendu feministaren helburua emakumeen batasuna zen, subjektu politiko indartsu baten inguruan antolatuta. Arrakastatsua izan zen ekimena eta mugimendu sendoa eta eraginkorra sortu zen baina gero krisiaren garaia etorri zen.

Espainiako Estatuan, 80. hamarkada bukaeran dispartzio eta ahultasuna nagusitu ziren. Testuinguru aldaketak, diferentzia eta zatiketen agerpenak, demokraziaren lorpenak, politika neoliberalak... egoera guztiz aldatu zuten eta feminismoa indarra galtzen joan zen. Mugimenduko batasuna solidoa ez zela konturatu ziren eta *Emakumeak* ez zituela emakume guztiak ordezkatzeko. Horrela 90. hamarkadan erabateko zatiketa eman zen eta 3. olatuko feminismoa izenez ezagutzen den mugimenduari hasiera eman zitzaion, krisi

⁵⁰ “Una reivindicación de primer orden: ¡Amnistía también para las mujeres!”, in Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak I, 48.

⁵¹ Fini Rubio, *Marxismo y liberación...*, 13.

testuinguruan. Gai berriak, taldeen zatiketa, identitateen zalantza, subjektu bakarraren bukaera suposatuz. Silvia Gilek esan zuen bezala:

*“La cuestión clave es que mientras el feminismo de la Segunda Ola se organizaba en tono a la unidad de todas las mujeres, los nuevos feminismos parten de la diferencia como condición inherente a la práctica política.”*⁵²

Identitatea genero, klase, arraza, etnia, adinak sortutako prozesua zela aldarrikatu zuten, subjektibitate konplexukoa eta kategoria bakarrera mugatu ezina. Ondorioz emakume izatearen beste kontzepzioak sortzen joan ziren eta posfeminismoa indarra hartzen joan zen. Problematika berriak eta mugimendu berriekin kontaktuak sortzen joan ziren; hala nola, transexualen eta genero identitatearekin, pornografiaren inguruan, sexuaren langileekin, lesbianekin, *queer* mugimenduarekin, mugimendu antiglobalizatzaileekin, migratzaileekin, antimilitarismoarekin etab.

Ikusi dugunez Euskal Herrian mugimendu feministak eragin handia izan zuen, berezitasun propioekin eta bertako testuinguruak baldintzaturik noski. Mugimendu bat izanik etengabeko transformazioa jasan zuen, eztabaidek, testuinguru desberdinek, konfliktoek etengabeko aldaketa bideratuz. Horregatik, feminismoaren mugak, banaketak eta ideiak desberdintzea askotan ez da batere erreza eta zerk eta nola influentziatu zuten jakitea ere ez. Hala ere, garbi dago aztertutako mugimenduak Mendebaldeko gizarteetan eragin handia izan zuela, eta toki eta errealitate desberdinetako militante eta kolektiboek elkarrengana izan zutela eta ideia komun asko garatu zituztela. Bigarren olatuko feminismoa beraz, mundu osotik hedatu zen baina tokian tokiko berezitasunek eta identitate ezberdinek feminismo bakarra eta homoginoa ukatu zuten eta bide horretatik iritsi zen hirugarren olatua, diferentziei garrantzia emanaz.

Azpirarratzekoa da mugimendu honek sortutako polemika eta pentsamendu, ohitura eta bizimodu hegemonikoarekiko talka. Hori ere berezitasun eta lorpen handienetarikoa da; barneratuak, normalizatuak eta naturalizatuak zeuden jokaera diskriminatzaile eta zapaltzaileez kontzientzia hartzea eta dominazio sistema hori bisibilizatzea. Horrek betiere polemika eta talka handia suposatu zuen, indar erreazionarioak beti aurrean izango

⁵² Silvia L. Gil, *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español* (Madrid: Traficantes de Sueños, 2011), 36.

zirelarik, baina garbi dago polemika eta eztabaida beti izango dela iraultzailea egoera zapaltzaileaz jabetzeko tresna baita.

Egungo gizartea historiaren ondorio izanik, lan honetan ikertutako mugimenduak gaur egungo pentsamenduan eragina du, Euskal Herrian ere bereziki, garai hartako eskaera eta aldarri asko barneratu eta gure egin ditugu. Hala ere, nahiz eta ideia eta printzipio asko oso barneratuak egon -beste asko oraindik ideia iraultzaileak eta konfrontazio iturri dira- gizartea askotan ez da kontziente feminismoari esker lortutakoak direla egungo eskubide eta askatasunak ez eta gizartea aldatzeko beharrezkoa dela, patriarkatuak oraindik ere indarrean eta erreakzioa sortzen jarraitzen duelarik. Egun, borroka feministak patriarkatuaren kontrako borrokan dihardu, oraindik ere sistema patriarkal eta kapitalistak zapaltzen gaituelarik. Bigarren olatuko feminismoaren analisi eta ikerketek egun zentzua izaten jarraitzen dute baina esan bezala mugimendu horren garapenak hirugarren olatuko feminismoa izenez ezagutzen den mugimenduan bilakatu da, horren ondorio zuzena izanik.

5. Bibliografía

- Amorós, Celia (koord). *Historia de la teoría feminista*. Madrid: Comunidad de Madrid, 1994.
- De Beauvoir, Simone. *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra, 1999 [1949].
- Gil, Silvia L. *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el Estado español*. Madrid: Traficantes de Sueños, 2011.
- Escario, Pilar. *Lo personal es político: el movimiento feminista en la transición*. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, 1996.
- Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak. Leioa, 1977.
- Harluxet entziklopedia. <http://www1.euskadi.net/harluxet/> (kontsulta data: 2015/05/24)
- Martinez Ten, Carmen et al. (ed.). *El movimiento feminista en España en los años 70*. Madrid: Cátedra, 2009.
- Mitchell, Juliet. *La liberación de la mujer: la larga lucha*. Bartzelona: Anagrama, 1975 [1966].
- Millet, Kate. *Política sexual*. Madrid: Cátedra, 1995 [1970].
- Nash, Mary. *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*. Madrid: Alianza, 2004.
- Rich, Adrienne. *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*. Madrid: Cátedra, 1996 [1976]
- Rubio, Fini. *Marxismo y liberación de la mujer*. Madrid: Dédalo, 1977.
- VV.AA. *La mujer en Euskal Herria: hacia un feminismo propio*. Donostia: Basandere, 2001.